

300/2019 EBAZPENA, otsailaren 15ekoa, BILBAO-BASURTO ESIko Zuzendari Gerentearena, María Begoña Yenes Andrés andrea izendapen askez Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko BILBAO-BASURTO ESIko Pertsonaleko zuzendariorde izendatzeko.

Urtarrilaren 9ko 4/2018 Ebazpenaren bidez argitaratu zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko BILBAO-BASURTO ESIko Pertsonaleko zuzendariorde lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ondoren bere proposamena egin du izendapenerako. Horiek horrela, eta María Begoña Yenes Andrés andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, egokia da izangaia BILBAO-BASURTO ESIko Pertsonaleko zuzendariorde izendatzea.

Bat etorririk Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen Hirugarren Arau Komuneko 28. artikulua, Osakidetzaren Lanpostu Funtzionalak Arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoarekin, hau

### EBATZI DUT

Lehenengoa.- María Begoña Yenes Andrés andrea BILBAO-BASURTO ESIko Pertsonaleko zuzendariorde izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek 2019ko otsailaren 18tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.- Izendapena egin duen organoak bere diskrezio-ahalez kargugabetu ditzake izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak eragingo du langilea beste postu funtzional batera lekualdatzea, beti ere interesdunaren kategoriari dagozkion baldintzek dirautela. Horrela, izendapenaren aurretik betetzen zuen lanpostuaren ezaugarri berak dituen lanpostu bati atxiki behar zaio, eta lehentasunez antolakuntza- eta lurralde-eremu berekoa izan behar du lanpostu horrek. Atxikipenak kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izan behar ditu ondorioak, eta Osakidetzak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatu behar da. Langileak lanpostua betetzeko ezarritako betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau jakinaraz bekie interesdunari eta BILBAO-BASURTO ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzari.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honen iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.



Osakidetza

BILBAO-BASURTO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ZUZENDARI GERENTEA

BILBAO-BASURTO ESIko ZUZENDARI GERENTEA

Izpt/Fdo.: Eduardo Maiz Olazabalaga

Eduardo Maiz Olazabalaga